



DOPA plataforma sortu dute Durangon, osasungintza publikoa "defendatzeko"

Durango • Herriko hainbat elkarte eta mugimenduk osatzen dute taldea. Osasungintzak "okerrera eta pribatizatzera" egin duela iritzita, "publikoa, kalitatezkoa eta doakoa" den sistema babestu gura dute. • **4**



Ur sakonetan ikertzen

Zornotza • Jan-Lukas Menzel ozeanografo zornotzarrak Antartikara egindako nazioarteko espedizio batean parte hartu du. Zientzialariak aldaketa klimatikoaren inguruko berbaldua eman du Zornotzako AsteKlima jardunaldien barruan. • **2-3**



Zaldua trail mendi lasterketa berria, bihar, Zaldibarren

Kirola • Kanpoko jendea ere erakarri guran, antolatzaileek ibilbide "exijentea" prestatu dute. • **26**



Bikote mistoen aldeko apustua Abadiñoako trinkete txapelketan

Kirola • Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketa nobedadeekin dator: paleta goman bikote mistoak arituko dira, eta esku pilotan gazteak. • **27**



Arropa-saltokien bilduma berriak erakusteko ordua

Durango • 71 herritarrek Durango Fashion Gauaren seigarren edizioan desfilatuko dute gaur. Ekitaldia Plateruena kanpoaldean egingo da, 20:30ean. • **5**

HOME SCHMIDT HOME

urriaren 2tik 31ra bitartean
URTEURREN ESKAINTZAK

ZURE SUKALDEA 6.000€-tik* aurrera

* Ikusi baldintzak dendan.



Jan-Lukas Menzel Barraqueta

Ozeanografoa

ZORNOTZA | 1986

“Ozeanoetan dagoenaren %3 baino ez dugu ezagutzen. Askoz gehiago dakigu espazioan dagoenari buruz”

Jan-Lukas Menzel ozeanografoak aldaketa klimatikoaren inguruko berbaldia eman du Zornotzako AsteKlima jardunaldietan. Antartikara ikerlari legez egindako bidaia azaldu du

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Jan-Lukas Menzel ozeanografo zornotzarrak birritan bisitatu du Antartika, zientzialari legez. Mundu osoko 100 ikerlari ura izoztean eta urtzean gertatzen diren prozesu fisiko, kimiko eta biologikoak aztertzerako joan ziren 2019an. Ikerketa horren ondorioen lehenengo publikazioak oraintxe ari dira kaleratzen. Ozeanografoak klima aldaketari buruzko berbaldia eman du Zornotzan, herriko gazteentzat.

Orokorrean, kontziente gara aldaketa klimatikoa lehenetsun bat izan behar litzatekeela?

Asko falta da horretarako. Bizi dugun erritmoagaz, kontsumo ohitura hauekin, geroago eta gehiago gura dugu. Beraz, gauzak aldatzeko kontzientiazio handiagoa behar da.

Geroago eta nabariagoa da tenperaturen igoera, uriolak... Batzuek oraindino ere ez dute egoeraren larritasuna onartzen.

Lehen mailako politikari batzuek jarraitzen dute esaten aldaketa klimatikoa ez dela gertatzen ari. Uda honetan bertan, Bilbon 45 gradura heldu gara abuztuan. Orain aste bi txingorra gogotik bota zuen... Fenomeno hauek geroago eta intentsuagoak izango dira, eta gatzagoak aurreikusten. Guk gaitasuna izango dugu egoera berri horretara egokitzeko. Aukera dugu gure ekonomiagaz eta bizitzeko moduagaz hori egiteko. Baina azaroan Namibiara noa, gai honen inguruan berba egiteko gonbidatu nautelako. Zer esango diegu desertuan bizi diren Namibiako herritarrei? Eurek ez dute

hau guzti hau eragin. Guk, oster, bai, gure kontsumoaren eraginez. **Birritan joan zara Antartikara zientzialari legez.**

Neguan eta udaberrian joan ginen. Ikerkuntzako kanpaina bi egin genituen. Normalean, neguan ez doa itsasontzirik Antartikara. Ikerkuntza estazioak badabiltza martxan neguan, baina kontinentearen barruan. Itsasontziak udan joaten dira, elikagaiak eramatera, eta estazioko jendea ere orduan aldatzen da. Doazen berriak hurrengo urtera arte egoten dira bertan.

Zertan datza ikerketa?

Izozte eta urtze aroek zelan funtzionatzen duten ulertu gura genuen. Antartikako kontinentearen inguruan izotza sortzen da neguan itsasoan, eta gero urtu egiten da. Izotz horren hedadura 1.500-2000

kilometrokoa izango litzateke. Prozesu horrek fitoplanktonean eta ekoizpen primarioan duen eragina ikertu gura genuen. Izotza sortzen denean, fitoplanktonak behar dituen elikagaiak harrapatuta geratzen dira izotzaren barruan. Fitoplanktonak metal horiek (burdina, zinka, manganesoa) behar dituzte hazteko, eta izotza sortzen denean kontzentratu egiten dira eta urtzerakoan askatu egiten dira. Paradoxa bat den arren, hegoaldeko itsasoetako urek soberan dituzte nitrato, fosfato eta silikatoak, baina ez dute metalik. Urak elikagaiz beterik daude, baina metalak falta direnez, fitoplanktona ez da hazten. Hori ez da beste ozeanoetan gertatzen. Oraindino ikerketa martxan da. Epe luzera egiten den lan bat da. Orain ari dira kanpaina horiei buruzko lehenengo publikazioak kaleratzen.

Neguko espedizioak ezohikoak izaten dira. Zelan joaten zarete presatuta?

Hegoafrikatik irten ginenez, presaketak hile asko lehenago hasten dira. Aduana kontuengaitik, materiala hara eramateak denbora eramaten du. Gure ikerketa taldeak gainera, metalak aztertzen

dituenez, hile bi eta erdi behar izaten ditu laginak hartzeko botilak garbitzeko. Neurtzen ditugun metalen kontzentrazioak oso baxuak dira. Behin han zaudenean ezin duzunez atzera egin, gauza asko errepikatuta eramaten duzu. Bestalde, guk eramaten dugun ikerketarako laborategia itsasontziko baina espezializatuagoa denez, hori kontainer batean eramaten da eta kubiartan ipintzen da.

Agulhas II munduan dagoen ikerketarako itsasontzirik handienetakoa da. 100 zientzialari eta 50 tripulatuak batu ginen

Errazagoa da satellite bat bidaltzea atmosferara talkarik ez dagoelako, 8.000 metroko sakonerara ekipo bat

Zenbat jende batu zineten?

Agulhas II munduan dagoen ikerketarako itsasontzirik handienetakoa da. 100 zientzialari eta 50 tripulatuak batu ginen. Guztira, 150 lagun. 20 unibertsitateetako jendea ginen. Abu Dabitik ere etorri ziren turbulenzia neurtzen. AEBetakoak, frantziarrak, alemanak, australiarrak...

Denok proiektu berean lanean?

Galdera bati erantzuteko, diziplina anitzeko ikerlariak behar dituzu: fisikariak, kimikariak, biologoak, geologoak... denek elkarlanean galdera berari erantzun ahal izateko. Izozte eta urtze prozesuan zer gertatzen da? Fitoplanktona soilik neurtuta ezin da jakin. Beste gauza gehiago aztertu behar da.

Esperientzia hau zelakoa izan zen maila pertsonal eta profesionalen?

Oso pozik nago horrelako esperientzia bat bizitzeagaz. Leku horretara ez da inor joaten, ikerlaria ez bazara. Ohetik jaiki eta alde guztietan dena izoztuta ikustea izugarria da. Izotz horretara jaitsi eta laginak hartu ahal izatea jakinda behean 5.000 metro ur duzula itzela da. Neguan ez zara beste itsasontziekin gurutzatzen. Neguko espedizioa hiru aste eta erdikoa izan zen, eta udaberrikoa 45 eguneko. Neguan 51 graduraino izan genituen zero azpitik. Izotzera jaisterakoan benetako hotzerako arropagaz joaten za-

ra. Orain, aldaketa klimatikoa inporta ez zaien eta dirua duten pertsonentzat modan dago Argentinara hegazkinez joatea, itsasontzi bat hartzea eta Antartikara joatea pinguinoak ikustera. Hori modan ipintzen ari da eta arazo handi bat da, baliabideen kontsumo handi bat eskatzen duelako eta zaborra sortzen duelako Antartikan. Leku horretan zientzialariak soilik egon behar dira, ez turistak.

Beste hainbat ikerketatan ere partu hartu duzu. Zeren inguruko ikerketak izan dira?

Orokorrean esan daiteke denak gai baten ingurukoak izan direla. Ozeanografo eta biogeokimikari legez, ahalegintzen gara ulertzen nondik datozen metalak, CO₂a, elikagaiak, zer gertatzen zaien eta nora doazen. Zikloak ulertzen ahalegintzen gara. Kontua da ez dakigula zer dagoen ozeanoan. Ozeanoetan dagoenaren %3 baino ez dugu ezagutzen. Askoz gehiago dakigu espazioan dagoenari buruz ozeanoan dagoenari buruz baino. Errazagoa da satelite bat bidaltzea atmosferara talkarik ez dagoelako, 8.000 metroko sakonerara ekipo bat bidaltzea baino. Presioa izugarria da eta itsasoko urak jan edo hondatu egiten du dena. Estazio espazial bat sortzea ur sakonetara ekipoak bidaltzea baino errazagoa da. Lan egin dudana James Cook (Britainia Handia), Purquois Pas? (Frantzia), Meteor (Alemania) eta Agulhas (Hegoafrika) itsasontziek NASaren antzeko lana egiten dute. Itsasoan gobernuek dituzten estazio punterengoak dira.

Zelan sortu zitzaizun ozeanografo izateko aukera?

Askotan, zuk gura duzuna barik, une horretan eskaintzen dizutena egiten duzu. Nik Itsas Biologia egin gura nuen. Orduan, Itsas Zientziak zegoela ikusi nuen eta Vigora joan nintzen ikastera. Gero, urtebete egon nintzen Mexikon. EHUKo Europako master bat egin nuen Itsas Ingurumenari buruz Frantzian, Ingalaterran eta hemen ere bai. Master amaierako tesia Ingalaterran egin nuen eta, horretarako, CO₂ neurtzera joan

nintzen James Cook itsasontzian, Glasgowtik Islandiara. Hantxe hasi nintzen ozeanografia eskala globalean egiten, itsas azaletik hondoraino. Zientziaren alderik onena da erantzunak aurkitzea ez dakigun zerbaiti buruz. Guk oinarritzko zientzia egiten dugu. Ez dago dirua sortzera bideratuta. **Klima aldaketari buruz, zer egin daiteke?**

Glaziarren eta Artikoko izotzaren urtzea, ozeanoen zirkulazio termohalinoa... prozesu horietan aldaketak aspaldi hasi ziren eta milaka urte behar dira hori geldiarazteko. Beste gauza batzuk neurri gogorak hartuta gelditu ahalko dira. Uste dugu planeta honetara igortzen dugun guztia diluitu egiten dela modu infinitu batean, baina mugara heltzen ari gara negutegi efektuko gasen kasuan. Elurrezko panpinaren bolatxoan pantxinatxo horrek sua piztuko balu ito egingo litzateke berehala. Bestalde, ozeanoek klima globala erregulatzen dute. Ur beroak zona tropikaletan igotzen dira, poloetara doaz eta han hotzitu egiten dira. Eta dentsitateagaitik sakonera igo egiten da. Hori da zirkulazio termohalinoa. Poloak eta izotza desegiten badituzu zirkulazioa eten duzu.

Ez gabiltza nahikoa egiten.

Ez, baina ezin da erantzukizuna norbanakoengan ipini. Hau goitik etorri behar da. Goitik eteten ez bada, ezinezkoa izango da. Beste gauza bat da maila pertsonalean erabakitzea hainbeste okela ez kontsumitzea, esate baterako. Ministro batek zeresan handia eman zuen okela gutxiago kontsumitu behar dela esan zuelako. Baina egia da. Ezin da okela egunero kontsumitu kilo euro bi ordainduta. Ez da jasangarria.

Gazteak zientzialari izatera animatuko zenituzke?

Bai, zalantzarik barik. Baina ez da erraza, hemen ez delako dirurik inbertitzen horretan. Ingalaterran, Frantzian eta Alemanian, ostera, bai. Zientzialari asko kanpora joan gara. Orain ematen du gauzak apurtxo bat aldatzen ari direla.



Menzel Antartikara egindako bidaian, Agulhas II itsasontzia atzean duela (2019).



Ikerlari zornotzarra Groenlandiara egindako beste espedizio batean.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



Durango hainbat eragilek DOPA egitasmoa sortu dute, "osasungintza publikoa defendatzeko" plataforma berria

Plataformako kideen iritziz, osasungintza publikoak "okerrera eta pribatizatzerara" egin du azken hamarkadetan. Horren aurrean, ibilbide bat hasi dute "publikoa, unibertatsala eta doakoa" den osasungintza eredua "defendatzeko"



DOPA Durango Osasungintza Publikoaren Alde plataforma osatzen duten kideetarikoz, astelehenean egindako agerraldian.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

DOPA jaio da, Durango Osasungintza Publikoaren Alde izeneko plataforma berria. Herriko hainbat eragilek sortu dute, "osasungintza publikoa defendatzeko asmoz". Horien artean daude Andereak elkarte, pentsiodunen mugimendua, Pediatria 24 orduz plataforma, anbulantzia medikalizatuaren aldeko taldea, Andaluziako Kultur Zentroa, Herria Auzo Elkarte, San Faustoko zentro soziala, herriko hainbat norbanako eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuak.

Plataformako kideen iritziz, osasungintza publikoak "okerrera eta pribatizatzerara" egin du azken hamarkadetan. Horren adibide modura ipini dituzte 2008ko krisialdi ekonomikoagaz hasi ziren "austeri-

tate politikak" eta koronabirusaren izurritik honazko joerak. Osasungintza publikoaren "etengabea eraistea" dagoela diote, eta osasun arreta "unibertatsala, kalitatezkoa eta doakoa" aldarrikatu dute horren aurrean. "Aurrez aurreko arreta osoa berreskuratzea gura dugu. Baita osasun mentalari dagozkion arloak hobetzea ere: psikologia eta psikiatria. 24 orduko pediatria zerbitzua gura dugu, eta anbulantzia medikalizatu bat Durangorako. Horrez gainera, beharrezkoa da autobus zerbitzu zuzena izatea Gernikako Gaitasun Handiko Osasun Zentrorra joateko", azaldu dute Matias Oregi eta Sabina Méndez bozeramaileek. Manifestu bat idatzi dute, eta informazioa banatu osasun etxe eta lantegietan. Aurrera begirako egitasmoen artean informazioa banatzeko mahaia ikintzea eta sinadurak batzea aurreikusi dute. Horrez gainera, ez dituzte mobilizazioak baztertu. Aurreratu dutenez, azaroaren 11n hainbat mobilizazio egingo da Euskal Herriko hiriburuetan.

Durango kiroldegietan akordioa lortu dute zazpi hilabeteko grebaren ondoren

Udal kiroldegietan azpikontrataturiko langileak urriaren 1ean bueltatuko dira lanera



Greban zeudela langileek egindako protesta ekitaldi bateko irudia.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Kirol Zerbitzuko langileek udalak egindako proposamena onetsi dute batzarrean. Hori dela eta, zazpi hilabete iraun duen grebaren ondoren, urriaren 1ean bueltatuko dira lanera. Halantzik jakinarazi du ELAk. Sindikatua esanetan, udalaren ikasturte berriko proposamenak langileen aldarrietariko "asko" jaso ditu. Hala nola fitness aretoko monitoreen laguntza zerbitzua une oro berrezartzea, eta baita errefortzu bat izatea ere jenderik gehien dabilen orduetarako. Gainera, mantentze prebentiboa bermatuko da, makineria zaintzeko eta konpontzeko. Orotara, 20 bat langilek osatzen dute kiroldegiko plantilla.

Durango mugimendu feminista azaroaren 30ean egitekoa den greba orokorra prestatzen hasi da

Urriaren 29an jarraituko dute prestaketagaz, Elkartegian



Durango mugimendu feministako kideak.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Azaroaren 30a zaintzarako eskubide kolektiboa aldarrikatzeko eguna izango da. Mugimendu feministak deituta, egun horretan greba orokorra egingo da Euskal Herrian. Durango

kideak hasita daude prestaketa lanetan. "Lehenengo komitea" egin eta gero, bigarren jardunaldi zabal bat egingo dute greba prestatzeko. Urriaren 29an izango da, 11:00etan, Elkartegian.

anboto >

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko irailaren 29a
21. urtea - 950. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Plateruenaren kanpoaldea 17 arropa saltokiren erakusleho izango da Durango Fashion Gauean

Desfilea bariku honetan bertan egingo dute, irailaren 29an, 20:30ean. 71 herritar egongo dira modelo lanetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Argi fokua isiotu eta musika martxan ipintzea baino ez da falta. Dendak Baik prest dauka Durango Fashion Gauaren seigarren edizioa. Ohikoa den moduan, herritarrek desfilatuko dute alfonbra gainean. Eta ohikoa den moduan, Durango-

ko arropa denden bilduma berriak izango dituzte soinean, erakusgarri. Baina, aurten, berrikuntzak ere badira. Gualdia Plateruena kanpoaldean egingo dute. Eta euria balitz, barrualdean. "Herriko beste ingurune bat indartu gura dugu. Gainera, desfileak, arropa

bildumak erakusteko bakarrik ez, Durangoko dendarien kemena erakusteko ere balioko du", esan du Alex Palacios Dendak Baiko arduradunak. Bestalde, Aine dendako Maria Oarbeaskoak galari buruzko xehetasunak eman ditu: "Adin guztiei begirako arropa bildumak egongo dira ikusgai. Arropak zein osagarriak. Helduei begirako bost look, eta umeei begirako beste sei". Guztira, 71 herritarrek desfilatuko dute.

Horrez gainera, L'Atelier dantza eskolako kideek dantza pare bat egingo dituzte. Yolanda Alzolak eta Zigor Iturrieta telebista aurkezleek gidatuko dute gala. Egunotan, Dendak Baik 100 euroko balioa duten bost bonu zozkatuko ditu erosketak herriko komertzioetan egiten dituztenen artean.



Dendak Baiko kideak, dendariak eta udal agintariak agerraldia egin zuten astelehenean.

En Tol Sarmiento, Huntza eta Raimundo el Canastero Durangoko jaien egitarauan

Mugarra triatloi taldeak jaurtiko du txapligo nagusia

DURANGO • J.D. / E.H.

Oraindino egitarau osoa publiko egin barik dagoen arren, apurka-apurka hasi dira San Fausto jaietako ekintza batzuk argitara irteten. Musika eskaintzari dagokionez, udalak baieztatu du En Tol Sarmiento (ETS), Huntza, Nebraska, Raimundo el Canastero eta Luhartz egongo direla, besteak beste, Durangoko jaietan. Horrez gainera, Irati Bilbao musikari durangarra ere oholtzara igoko da bere bandagaz, eta Iñaki Ruiz de Galarretak gorpuzturiko Sun Magoak aho zabalik utziko ditu magia ikuskizunera bertaraten direnak.

Udaletxeko balkoitik jaurtiko diren txupinek ere badute izena eta izana. Aurten Mugarra Triatloi Taldeak botako du txupinazo nagusia, eta Kurutziaga ikastolak txikia. Bestalde, JAED elkarteak jaietan erabiltzeko zapiak kaleratu ditu. 9.000 zapi ipiniko dituzte salgai, iaz baino 3.000 gehiago. Elkartetik jakinarazi dutenez, zapiak elkarteari atxikitako establezimenduetan eskuratu daitezke.



lazko jaietako txupinazo udaletxeko plazan.

Euskaltzale independentisten topaketan parte hartzeko deia

Durangoko Euskal Herrian Euskarazek urriaren 7tik 8ra Villabonan egitekoak diren topaketetara joatera deitu du



Euskal Herrian Euskarazeko kideak, topaketak aurkezteko agerraldian.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin Euskaltzale Independentisten Topaketak egingo ditu Amasa-Villabonan (Gipuzkoa), urriaren 7tik 8ra bitartean. Besteak beste, euskaraz kultur gintzaren transmisioan, gazteriarengan eta ikus-entzunezkoetan dituen erronkak aletuko dituzte mahai-inguru, berbaldi eta tailerretan. Horien artean egongo da Amets Aranguren, Amets Arzallusek, Estitxu Garaik, Lorea Agirrek, Eneko Bidegainek eta Ekhiñe Atorrasagastik osaturiko mahai-ingurua. Egitaraua osa-

Durangoko euskaltzaleek urriaren 7an irtengo dute Madalenatik Villabonara, 8:45ean, autoz

tzen duten beste egitasmoetarikoz batzuk ekitaldi politikoa, herri bazkaria eta Yogurinha Borova zein Gora Etorri taldeen emanaldiak dira. Durangoko Euskal Herrian Euskarazek topaketetan parte hartzerantz deitu ditu herritar euskaltzaleak. Urriaren 7an, 08:45ean irtengo dute Madalenako autobus geltokitik, autoz.

Durangoko gobernu taldeak 10 lan ildo nagusigaz garatuko du legealdia

Garapen ekonomikoa, kohesio soziala, hiri eraldaketa, osasuna eta merkataritza daude lan ildoen artean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Legegintzaldia hasi zenetik 100 egun joan direnean, Durangoko gobernu talde berriak (EAJ-PSE-EE) orain arte egindakoa laburbildu eta datozen lau urteetarako programa aurkeztu du. Mireia Elkororibe alkateak azaldu duenez, kiroldegietako gatazka konpontzera bideratu dituzte lehenengo ahaleginak. Horrez gainera, hainbat batzar egin dute askotariko eragileekin, hala nola Osasun Sailagaz Durangon dauden beharrak jakinarazteko, Eusko Jaurlaritzagaz eta Euskal Trenbide Sareagaz tren geltoki zaharreko lursail bat behin-behinean jaietarako erabiltzeko, eta beste hainbat eragileguz Landako Gunea in-

dartzeko eta bertara ekitaldi "jendetsuak" eramateko.

Bestalde, gobernu taldeak legegintzaldi honetan landuko dituen "10 lan ildo nagusiak" aurkeztu ditu. "Lehentasunezko 100 jarduera" idenfitikatu dituzte bertan. Horien artean daude Durangaldeko Ekogarapen Gunearen eraikuntza erraztea, Kirolene kirol-irakaskuntzen gunea sustatzea, Eguzkitzako industria-garapena bultzatzea, trenbide zaharreko lursaila "ahalik eta arinen" proiektu "bideragarri" batez garatzea eta airearen kalitatea hobetzea. Jasagarritasunak eta mugikortasunak "pisu handia" izango dutela aurreratu du gobernu taldeak.

Mallabiko eskolak bazkari bategaz eta askotariko ekintzekin ospatuko du sortu zeneko 50. urteurrena

Learreta-Markina eskolak mende erdi bete du aurten eta eskolako komunitateak egitarau zabala antolatu du urteurrena ospatzeko. Egun nagusia urriaren 21eko zapatua izango da



Aurten, 2tik 12 urtera arteko 88 ikasle daude Learreta-Markina eskolan.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Learreta-Markina eskolak 50 urte betetzen ditu aurten, eta eskolako komunitatea lanean dabil urteurrena merezitako moduan ospatzeko. Egun nagusia urriaren 21eko zapatua izango

da. Egun horretan, besteak beste, bazkari bat egingo dute frontoian. Bazkaritarako txartelak barikuro ipintzen dituzte eskuragarri pilotalekuko postu batean. Irailaren 29an eta urriaren 6an eta 13an ere hantxe egongo dira, 18:00etatik

20:00etara bitartean. 16 urtera artekoentzat 12 euroan daude salgai txartelak, eta 17 urtetik gorakoentzat 18 euroan. Oraingoz, 100 txartel baino gehiago saldu dituzte.

Bazkaria urteurreneko kolofonia izango da, gaurko eta atzoko esko-

lako komunitatea mahai baten inguruan batuko den ekimena, baina ospakizuna egun osora zabalduko dute. Argazki erakusketa bat ere antolatu gura dute. Denbora bat daramate argazki zaharrak batzen, eta horiek ikusgai ipiniko dituzte. Bazkaritara jesarri aurretik, herri- tik zehar kalejira bat egin gura dute. Bazkalostea musika talde batek girotuko du.

Bazkaritarako txartelak barikuro ipintzen dituzte salgai pilotalekuko postu batean

Kontzertua eta abestia

Ospakizuneko beste ekimen bat gaur egungo ikasleak sasoi bateko ikasle eta irakasleekin batuko dituen solasaldia da. Garai batekoen esperientziak entzunda, eskolaren bilakaerari buruz gehiago jakiteko aukera izango dute ikasle gazteek.

Urriaren 20an, jai nagusiaren aurreko egunean, musikariak diren ikasle ohi batzuek kontzertu bat emango dute. Talde ezagunen hainbat bertsio joko dute. Musikari hauek beste proiektu batean ere badaude murgilduta. Abesti berri bat sortu eta grabatu dute eskolako urteurrenari begira.

Errose Bustintzak idatziriko ipuinen irakurketa egingo dute Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Ondarearen Europako Jardunaldien harira Mañarian egingo duten ekimenetariko bat Errose Bustintza idazleari eskainitakoa izango da. 'Errose Bustintza, Mañariko larrosa, Herriaren Boza' izenburupean, idazle mañariarrak idatziriko ipuinak irakurriko dituzte Gerediaga elkarteak antolaturiko ekimenean. "Ipuinak, olerkiak, kantak... guztiak maite zituen Bustintzak eta, ipuingintzan nabarmendu bazen ere, poe-

Ekimena urriaren 28an izango da eta izen ematea 'ondareabizkaia.eus' webgunean egin daiteke

siaz gainezka dago bere prosa, eta ahozkotasanaren musikalitasunaren lorratza dakar berban-berban", esan dute antolatzaileek Bustintzaren lanari buruz.

Ekimena urriaren 28an izango da, 17:00etan, Mañariko kultur etxean. Ondoren, txokolate beroa emango dute. Izen ematea ondareabizkaia.eus webgunean egin daiteke.

Ekimenez beteriko eguna bihar Otxandion, 'Gorbeia' Altxorak' ekimenean

Gorbeia Helmuga Turistikoak antolatuta, dastatzeekin eta Korrontzi taldearen kontzertuagaz gozatu daiteke



Korrontzik dantza, herri kirola eta musika uztartzen dituen ikuskizuna egingo du. **KORRONTZI**

OTXANDIO • J.D.

Gorbeia Helmuga Turistikoak 'Gorbeia Altxorak' izeneko ekimena antolatu du zapatu honetarako Otxandion, inguru horretako paisaian, gastronomian zein beste hainbat arlotan dauden aberastasunak ezagutarazteko helburuagaz. Egun osoko jaietan, adin guztiei zuzenduriko ekintzak egongo dira.

Ekimen batzuetarako izena eman behar da eta plazak mugatuak dira. Dastatze biren kasuan, abidibez. 11:30ean hasiko den Urigoitiko txorizoena eta 13:00etan hasiko den Ugabe txakolinarena eta bermutarena. Urigoitiko Txorizoak Orozko herrian orain hamarkada bat baino gehiagotik dagoen txerri aziendaren familia ustiapena da. Euren txorizoez birritan irabazi dute Euskadiko txapelketa. Bestalde, Ugabe Txakolinaren ustiategia Artea udalerrian dago. 2016tik Bizkaiko Txakolina jatorri-izena hartuta dauka eta txakolin hau artisau eran ekoizten da oso-osorik. Dastatze bi hauetarako

izen-ematea gorbeia.euskadi.com webgunearen bitartez egin daiteke.

Eguerdian eta arratsaldean musika izango da nagusi. 13:00etan Jazz Collective Quartet taldearen kontzertua hasiko da, eta 19:00etan Korrontzik dantza, herri kirolak eta folk musika uztartzen dituen *Izan bagara* ikuskizuna egingo du.

Goizetik eguerdira ekoizle eta artisauen azoka egingo dute, ondoan gastro-gune bat duela

Ekoizle eta artisauen azoka

Aipaturikoaz gainera, Gorbeia ekoizle eta artisauen azoka ere antolatu dute; 11:00etatik 15:00etara izango da. Ondoan gastro-gune bat izango du, azokan erosiriko produktuak lasai jateko espazioa. Azkenik, sormen gunean umeei zuzenduriko ekintzak egingo dituzte.

Adinekoen jarduera fisikorako orientazio zerbitzua eskainiko dute Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Mankomunitateak MOBI Durangaldea programari berrekingo dio. Jarduera fisikoa bultzatzea eta sedentarismoa murriztea dira egitasmoaren helburuak. Zerbitzua eskualdeko osasun zentroekin, gizarte zerbitzuekin eta adinekoen zerbitzuekin koordinatuta dago, eta arreta berezia ipintzen du 65 urtetik gorako emakumeen kolektiboan. Eskualdeko beste herri batzuekin batera, Izurtzan ere emango dute zerbitzua.

Gaian adituak direnek emango dute jarduera fisikoaren gainera orientazio zerbitzua, eta bertaratu gura duenak eguazteten izango du horretarako aukera, Izurtzako udaletxeko bazterrean, 11:30etik 13:00etara.

KIROL ERROTA



34€

TIK HASITA

KIROL ESKAITZA



CICLO



PUMP



HIT



TRX



BODY STRETCH



BALANCE



GAP




STEP CARDIO



KIROLA EGIN
PADEL / TENIS PISTAK
AEROBIKA
GIMNASIOA
SAUNAK

KIROL ERROTA
info@kirolerrota.eus



Abadiñon konponbide bila uholde arriskuari aurre egiteko lanek eragiten duten zama arintzeko

Udaleko kideak URAko ordezkariekin bildu ziren hitzarmenaren inguruan berba egiteko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen martxoan, Abadiñoako Udalak eta URAk hitzarmena sinatu zuten uholde arriskuaren prebenitzeko. Hitzarmen horren barruan, hainbat jardura egingo da Traña-Matienan. Lan horiek 6,3 milioi eurotik gorako aurrekontua dute.

Hori horrela, irail erdian Mikel Urrutia alkatea, Jose Luis Navarro Hirigintza arloko arduraduna eta udaleko teknikariak URAko ordezkariekin bildu ziren, hitzarmenaren xehetasunetan sakontzeko. Udalak bere gain hartu behar duen karga ekonomikoa arintzeko alternatibak bilatzea zen helburua.

"Oinarrizko hainbat premia dugu eta horiei erantzun behar zaie,



Mikel Urrutia alkatea eta Jose Luis Navarro Hirigintza arloko arduraduna.

baina zenbateko horrek soberakinean dugun kopurua gairatzen du. Horregaitik, karga ekonomiko hori arintzeko formulazioak bi-

latzea proposatu diegu. URAren aldetik, jarrera positiboa eta irekia aurkitu dugu lanean jarraitzeko", azaldu du Urrutiak.

Belaunaldien arteko tailerra eta txokolatada gaur Atxondon Nagusien Eguna ospatzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urriaren 1ean Nagusien Nazioarteko Eguna ospatuko da eta Atxondoko Anbotoko Dama Nagusien Elkarrekin, Atxondoko Udalaren eta Atxondoko Kultura Mahaiaren laguntzagaz, progra-

mazio berezia antolatu du gaur arratsalderako, irailak 29.

Hori horrela, gaur, 18:00etan, 'Nagusien eta gazteak: Elkarrekin gozatzeko, goxoaren bila!' belaunaldien arteko tailerra egingo dute Apatamonasterioko frontoian.

Sormeningeko kideek gidatuko dute tailerra. Behin tailerra amaituta, txokolatada egongo da bertaratzen diren denentzat.

Nagusien Nazioarteko Eguna bera ere ospatuko dute, domekan, urriaren 1ean.

Arrazolan Erlaunpe elkartearen 50. urteurrena ospatuko dute bihar

Egun osoko egitarauagaz ospatuko dute Erlaunpe elkartearen urteurrena, irailaren 30ean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Biharko ospakizun eguna da arrazolarrentzat. 50 urte bete dira arrazolarren batu eta herriari bizia ematen dion Erlaunpe elkartearen sortu zutela, eta egun osoko egitaraua antolatu dute hori ospatzeko.

Erlaunpen bazkide direnak eta bazkide izandakoak elkartuko dira, 11:30ean, eta sorrerako kontuen inguruan arituko dira. Ondoren, denek elkarrekin bazkalduko dute bertan. Eta arratsaldea girotzeko, trikitilariak izango dituzte.



Erlaunpe elkartearen argazkia.

Bihar Kulotxako jaiak ospatuko dituzte, egun osoko egitarauagaz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bihar, irailak 30, Elorrioko Kulotxa auzoko jaiak ospatuko dituzte, egun osoko egitarauagaz. 11:00etan artisau azoka izango dute, eta ordu horretan hasiko dira ere jolasak eta eskulanak etxeko txikienentzat; baita puzgarriak ere. 12:00etan dantzak egongo dira, Jammers taldearen eskutik.

Arratsaldean txokolatada egongo da, eta 18:00etan disko festa, Gor Super D.Jey-ren eskutik. Kulotxa auzoko jaiak amaitzeko, afari kontzertua egingo dute, 20:30ean. Aitor eta Maider musikariak afaria girotzen arituko dira.



Errebonbillo irudia.

Errebonbillo Eguna ospatuko dute domekan Elorrion

05:00etan emango diote hasiera Errebonbillo Egunari. Egun osoko egitaraua antolatu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domeka honetan, urriak 1, Errebonbillo Eguna ospatuko dute Elorrion. Beraz, beste urte batez berriro ere entzungo dira Errebonbilloetako alardearen doinuak Elorrioko kaleetan.

Ohiturari eutsiz, goizeko bostetan emango diote hasiera domekari, errebonbilloek udal txele aurrean jaurtiko dituzten munizioekin. Horren ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira tiroka, eta gero alkateak gosarira gonbidatuko ditu. 11:00etan Nesken Gomaz-

ko Paleten zirkuituko partidua egongo da, 11:30ean meza, eta 13:00etan Durangaldeko Jaizale Txistularien kontzertua. Arratsaldean, 17:00etan, Elorrioko Errebonbilloek Errosarioko Amabirjinari prozesioan lagunduko diote, eta herritarrekin batera soka-dantza dantzatuko dute.

Aurten, gainera, Elorrioko Argazki Taldeak errebonbilloen gaineko erakusketa egingo du Iturri Kultur Etxean. Erakusketa urriaren 13ra arte egongo da bisitagai.

Gazte Topagune Sozialista aurkezteko jardunaldia egingo dute Elorrion, irailaren 30ean

Topagune Sozialista Atarrabian eta Burlatan egingo dute

ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Zapatuan Topagune Sozialistaren inguruko batzar informatiboa egingo dute Elorrion. Batzarra 18:00etan izango da, elizpean.

Berbaldia amaituta, eskualdeko artista gazteen emanaldiei

ekingo diete. Hiru kale kontzertu izango dira; plazan hasi eta Erreka kalean barrena egingo dituzte.

Gazte Topagune Sozialista Nafarroako Atarrabia eta Burlata udalerrietan egingo dute, urriaren 11tik 15era.



Iazko uztailean Durangon egindako Gazte Topagune Sozialistaren irudi bat.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hizordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naiia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental | hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06

**Ainara
Urreta
Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIARIK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 beheka
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
beheka eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13



Anbotokideen txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



Anbotoko Mari umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Urriaren 8an, San Agustinen.



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun: Markel Arteaga Zugaza

Gosaria Gauargin: Jon Urretabizkaia Alberdi

Andereño ikuskizuna, Zornotzan: Urtzi Rementeria Zubero

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibarko udaletxea.

Zaldibarko udaletxea eraberrituko dute

Udalak 100.000 euroko inbertsioa egingo du

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak 100.000 euro inbertituko ditu udaletxea eraberritzeko; besteak beste, zeramikazko teilazko estalkia ordezkatzeko dute, eraikina energetikoki eraginkorragoa izateko; horrez gainera, eraikinaren fatxada egokituko dute. Eraikina konpontzeko, egungo teilak eta erretenak kendu, eta isolamendu termikoa ipiniko dute; egungo tximiniak ere eraberrituko dituzte, eta txarto dauden zurezko teilatu-hegalak konpondu eta lehengoratuko

dituztela azaldu du Zaldibarko Udalak. Fatxadako lanak "gutxieneoak" izango direla argitu du: "euskarria saneatuko dugu eta fatxada emultsio akrilikoz pintatuko dugu".

Udaletxearen konponketa honetarako, Bizkaiko Foru Aldundiak ia 30.000 eurogaz lagunduko du.

1976ko eraikina

Zaldibarko udaletxea, eraikina, 1976koa da eta ordutik eraberritze lan bi eduki ditu, bata 2008an eta bestea 2010ean.

Urriaren 7an VII. Aniztasunaren Eguna egingo dute Zaldibarren

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Jendeak elkarteak Aniztasun Eguna antolatu du urriaren 7rako; festa eta aldarrikapena batzen dituen ekimena antolatzen duten zazpigarren urtea da. 13:00etan emango diote hasiera egunari ekitaldiagaz; herriko txalapartariak, abesbatzak, dantzariak eta abeslariak egongo dira bertan. Ondoren, bazkaria egingo dute munduko janari desberdinekin. Zaldibarren sustraiturik dagoen ekimena da Aniztasun Eguna, eta bertan, kultura eta ohitura

13:00etan egingo da hasiera ekitaldia, udaletxeko plazan; Zaldibarko Jendeak antolatu du

desberdinak ezagutzeaz gainera, aldarrikapenerako tartea ere egoten da; besteak beste, politika migratzaileak salatu izan dituzte. Ekitaldi guztiak udaletxeko plazan egingo dira.


Bestalde, Zaldibarko Udalak jakinarazi du Neguko Azoka azaroaren 26an egingo dela; izena emateko epea urriaren 1ean zabalduko dute. Izena emateko, 946 827 016 telefonora deitu edo kultura@zaldibar.eus helbidera idatzi behar da.

Berrizko Okango auzoan Mikel Deunaren jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Eguenean jaso zuten Donien Atxa Berrizko Okango auzoan; gaur odoloste jana eta bolo txapelketa egongo dira; domekara arte ospatuko dituzte Mikel Deuna jaiak

BERRIZ • A. M.

Okango auzoa Mikel Deunaren jaietan murgildu da. Eguenean jaso zuten Donien Atxa, eta astebururako egitarau mardula prestatu dute. Gaur, barikua, meza, odoloste jana eta bolo txapelketa egongo dira. Zapatuan, arratsaldetik ekingo diote jaiari; 17:00etan ume jolasak egongo dira, eta 18:00etan txirrindularitza lasterketa herrikoia. 20:00etan Gorka Bravok eta Markel de Reparazek kontzertua joko dute; Bravok zarrabetea joko du, eta de Reparazek gitarra. Domekan, urriak 1, XXVII. Berrizko Baselizen oinezko ibialdia egingo dute. Festak borobiltzeko, meza egingo dute hildakoen omenez, eta Ireminiëk dantzan egingo du gero.



Gorka Bravo Barreiro.



lazko mendi martxaren une bat. DERANDEIN FUNDAZIOA

Derandain Mendi Martxak Saharaz hegoaldeko herrialdeen egoera bistaratuko du domekan

Ibilbidean zehar erakusketak egongo dira, ur eskasiak dakartzan arazoak ikusarazteko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Kirola, mendizaletasuna eta elkartasuna batzen dituen ekintza izango da domekakoa. Derandain Fundazioak mendi martxa bat antolatu du Saharaz hegoaldeko herrialde behartsuenen egoera ikusarazteko. Zazpi kilometroko mendi martxa izango da, Zornotzako hainbat base-ri-azuo zeharkatuko dituena. Baina berezitasun argi bat izango du. Izan ere, ibilbidean zehar uraren egoerari eta arazoei buruzko erakusketa batzuk ikusiko dituzte. Munduko uraren egoera

zein Saharaz Hegoaldeko Afrikako egoera. Ibilaldia 10:00etan hasiko da, Jauregibarria parketik. Ibiltariak Zubipunte, Derandain, Urumin, Arrinda, Etxano, Epaltza eta Urritxe auzoak zeharkatuko dituzte. Martxa doakoa da, baina parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute alde zuzetik. Horretarako, inprimakia bete beharko da www.derandain.org atarian, edo mezu bat bidali derandain@derandain.org helbidera. Izena emateko beste aukera bat 9:30ean ibilbidearen irteera-bertan, Jauregibarrian.

Derandain mendi martxa antolatzen duten bosgarren aldia da hau. Izen bereko fundazioak antolatzen du, Zornotzako Udalaren laguntzagaz. Fundazioak 2007tik lan egiten du Saharaz hegoaldeko herri behartsuen bizimodua hobetzeko, haien eskubideak babestuz eta sustatuz. Zornotzako Udalak ere fundazioagaz esku hartzen du garapenerako lankidetzaren proiektu bat finantzatuta. Hain zuzen ere, Kongoko Errepublikako Demokratikoko Kinshasa hiriburuko proiektu batean.

La Mala Pekora eta paella txapelketa Dudaeko jaietan

Barikuan eta zapatuan San Migel jaiak ospatuko dituzte. Txapelketa eta animazio ugari batu dute egitarauan

ZORNOTZA • J.D. / E.H.

Asteburuan jaiak ospatuko dituzte Zornotzako San Migel Duda auzoan. Ekimenez beteriko egunak izango dira. Musikari dagokionez, La Mala Pekora nabarmendu daiteke, rock doinuak mariatxi erritmoekin uztartzen dituen taldea. Sortu zeneko hamargarren urteurrena ospatzeko, talde nafarrak *God Save Chuchín* diskoa kaleratu du, bere ibilbideko hirugarren lana. Besteak beste, La Oreja de Van Gogh,

Platero y tú, Potato, Rotten XIII, Sex Pistols eta Joe Armstrong talde edo musikarien abestien bertsoiak egiten dituzte. Kontzertua gaur bertan izango da, 22:30ean. Bestalde, egitarauan askotariko txapelketak eta animazioak nabarmen dira. Paella, patata tortilla, mus eta briska txapelketak batetik, eta txarangak, trikipotea eta umentzako animazioak bestetik. Egitarau osoa ezagutzeko ale honetako agenda kontsultatu daiteke.



La Mala Pekora taldea, zuzeneko batean. JOSÉ A. DÍEZ

Montoitik jaurtiriko txapligoekin jai giroak eztanda egin du lurretan

Ekitaldiz beteriko San Migel egun handia dute gaur; mozorro eguna ospatuko dute bihar



lurretako Montoia jendez bete da aurten ere, sanmigelel merezitako ondoetorria emateko.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herriko sei kofradietako ordezkariak Montoitik jaurtiriko txapligoekin, iurretarrak jai giroan murgildu ziren atzo, eta ekitaldiz beteriko asteburua dute aurretik. Egun handia dute gaur, gainera, San Migel eguna. Dantzarien eta agintarien kalejiragaz hasiko dituzte ekitaldiak, 11:00etan, eta gero dantzariak saioa egingo dute plazan. Arratsaldean, Gorulari dantza berreskuratu zeneko 50. urteurrena ospatuko dute; eta bertsoek, mariatxiak eta Oxabi taldearen doinuek alaituriko gaua izango da. Bihar herri bazkaria izango dute eta Mozorro Eguna ospatuko dute, musikak eta Lekittoko Deabruak taldeak alaituta.

Garaiko herritarrek bertako errituak azaltzeko jardunaldia izango dute zapatuan

10:30ean izango da eta inskripzio kopurua beterik dago

GARAI • EKAITZ HERRERA

Aspaldiko prozesioak eta uzta ona eskatzeko zein trumoa uxatzea eskatzeko letania kristauak. Zapatuan, era horretako errituak ezagutzeko jardunaldia egingo dute Garain. Herritarrek eurek emango dute udalerrian aspaldi egiten ziren ohitura horien berri. Oraindino bizirik mantentzen den prozesioa azalduko dute, eta sasoi bateko letania bat simulatu. Egitasmoa Ondarearen Europako Jardunaldien barruan egingo dute, Gerediaga elkartearen eta Garaiko Udalaren laguntzagaz. Jardunaldia 10:30ean hasiko

dute, San Migel elizatik. Ibilaldi gidatu bat egiteaz gainera, ardo gozoa eta galletak dastatzeko aukera izango dute, garai ba-

Ibilaldi gidatu bat egiteaz gainera, ardo gozoa eta galletak dastatzeko aukera egongo da

tean letanietan egiten zuten antzera. Inskripzio kopurua beterik dago. Baina ondareabizkaia.eus atariak aukera zabalik dauka izena eman eta itxarrote-zerrendan sartzeko.

Zapatuan, irailak 30, Artzain Eguna ospatuko dute Atxondon, Axpen

Hainbat ekitaldi egongo da: gazta txapelketa, ardi eta ahari erakusketa eta ardi-txakur txapelketa, besteak beste

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatuan, irailak 30, Artzain Eguna beste edizio bat ospatuko dute Atxondon, Axpen. 11:00etan emango diote hasiera egitarauari, gazta txapelketagaz. Ordu berean, elkartearen ardi eta ahari erakusketak egongo dira. Eta 12:00etan ardi-txakurren lehiaketa egongo da,

baita ardi-mozte erakusketa ere. Eguerdian emango diote amaiera egitarauari, 13:30 inguruan, sari banaketagaz.

Zapatuko Artzain Eguna Bizkaiko Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkarrekin antolatu du, Atxondoko Udaleren eta beste hainbat erakunderekin laguntzagaz.



Aurreko edizio bateko argazkia.

Durangaldea asteen

Javier Crespok dimitituta, Patxo Campok hartuko du bere kargua Abadiñoko Udalean

ABADIÑO | Javier Crespo PSE-EEko zinegotziak kargua uztea erabaki du, zinegotzi kargua eta laneko ordutegiak ezin dituelako bateratu. Cresporen tokia zerrendako bigarrenak hartuko du, Patxo Campok. "Ilusioz eta gogotsu nago. Talderik onena daukat, eta nire alderdiaren laguntza", azaldu du Campok.



Rai Bikandik 'Greening Cities' izeneko erakusketa ipini du Ezkurdi Aretoan

DURANGO | Rai Bikandi durangarrak *Greening cities* izeneko erakusketa inauguratu zuen joan zen barikuan, Durangoko Ezkurdi aretoan. Ingurumenari buruzko hainbat ikus-entzunezko eta bideo emanaldik osatzen dute erakusketa, eta herritarren kontzientzian eragitea du helburu. Erakusketa domekara arte egongo da, 18:00etatik 20:00etara.

Iritzia

Gutuna

"Mugikortasunaren Europako Astea" izan da, urtero legez, irailaren 16tik 22ra.

Eta horren harira, eskualdeko garraio publikoaren egoerari buruz gogoeta batzuk konpartitu nahi nituzke:

* Ikasturte hasiera honetan autobusak eta trenak gainezka dabilta eta herritar mordoa lanera edo eskolara zutik eta modu txarrean joaten ari gara.

Zenbat luzatuko da egoera hau? Nola erakarri jendea garraio publikora zerbitzua eskasa bada?

* Donostiako konexioaz: Daukagun autobidea daukagula, noiz arte itxaron beharko dugu herritarrok Durangotik Donostiara garraio publikoz modu duin baten joan ahal izateko? Ordu beteko bidaia balitz zenbat jende joango litzateke pozik autobusez Donostiara?

* AHT: Honi buruz ez zait hitzik etortzen, malkoak baizik. Zergatik ari gara gure lurra suntsitzen?

Mugikortasun jasangarriaren alde, egin dezagun benetan denok herritarrok, garraio arduradunok, agintariok- gure esku dagoen guztia.

Idoia Madariaga

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Paule Sánchez
Arieta-Araunabeña
EAJ



SMS baten zain

Lerro hauek idazten hasi naizenean, sms baten zain nago.

Andraguneko ikasturte berriko prestatutako ikastaro eta ekintzen artean, iada, nire aurten akeraketa egin eta eskaria bota dut. Horieta baten bat egokitzen bazait, sms bat helduko zait.

Duela urte batzuk hasi nintzen Andraguneko ikastaroetan parte hartzen eta, aukera izan dudana bakoitzean, horren onurak aldarrikatzen saiatzen naiz. Astekeari honek 1.500 karaktere eskaini dizkit eta ez nuke honetarako aukera alferrik galdu nahi. Andraguneko eta Berdintasun Sailak eskaintzen dituzten ikastaroak eta ekintzak liburuxkan irakur ditzakegun edukiez haratago doaz. Ikastaroek interes, kezka, ilusio, amets, beldur... berdintsuak partekatzen dituzten emakume desberdinak batzeko aukera ematen dute.

Parte hartzaileak auzo desberdinetako neska gazte eta emakume eta ez hain gazte dira; bakoitzak bere okupazioa dauka; bakoitzak bere egunerokoa bizi du; bere erronkak ditu eta beste gauza askoren artean, gainera, karga mental propioa du, bakoitzak berea (eta sarritan, hurkoarena ere bai).

Bitxia da. Parte hartzaileak elkarrengandik antipodetan egon daitezkeela dirudien arren, komunitatea egiten da. Aurreiritziak eta doako epai-ketak alde batera aparkatuta utzita, errespetuzko erlazioak sortzen dira eta batzen dituen urrutzen dituen baina sendoagoa denez, elkarbizitza osasuntsu bat sortzen da. Nire uste apalean, Andraguneko hormetatik haratago hedatu beharko genukeen beharrezko elkarkidetzak sortzen da.

Ea asteburuan sms hori helitzen zaidan.

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org


anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



BURUARI KLIK!





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



TXIKITIK HANDIRA

Beheko irudian ordenatu etxebizitzak txikitik handira.



ITZALAK

Madalena bakoitzari bere gerizpea dagokio.



ESAERA ZAHARRA

Ordenatu hitzak eta idatzi esaera zaharra beheko lerroan.

argitu

iluna

Abenduko


orduko

eguna,



TOPATU ITZATZU

Topatu hamar objektu hauek beheko irudian.



DIFERENTZIAK


Topatu hamar diferentziak.



MARGOTU




Margotu ezazu beheko irudia gura duzun moduan.
Adibide bat daukazu alboan margotzen laguntzeko
Moztu marretatik eta egin kareta bat.



LABIRINTOIA



Bazara gai bidea topatzeko?
Lagundu pailazoari globoak berreskuratzen.





Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





'Redada familiar'

ANTZERKIA DURANGO :: Urriak 1

Inogaz ez fidatzeko moduko komedia

Etxean lasai afaltzen dabilen familia batek Informatika Delituen Unitatearen (IDU) sarekada jasan du, familiako kideren batek etxe-porno sare bat darabilen susmoa dagoelako. Horrela hasten da Vaiven konpainiak taulaturiko *Redada Familiar* obra. Hasieran, ematen du denak direla egozten zaizkien delituen errudun, baina apurka ikusleak jakingo du akuzazioen oinarri diren artxiboak

ez direla diruditenak. San Agustín kulturgunean taulaturiko dute inogaz ez fidatzeko moduko komedia, domekan, 19:00etan.

Ainhoa Aierbe, Mikel Laskurain, Nerea Gorriti eta Xanti Korostegi igoko dira taula gainera, Aitziber Garmendiaren lankidetzaz bereziagaz. Guztiak Olga Margalloren zuzendaritzapean arituko dira. Antonio Muñoz de Mesarena da testua.

Irailaren 29an

BERRIZ sanmiguelak

Meza, 19:00etan, Okangon.
Odolosteak eta bolo txapelketa.

IURRETA sanmiguelak

Dantzari eta agintarien kalejira, 11:00etan, Montoitik.
Dantzariak, 12:30ean, plazan.
Abentura ekintzak, 16:00etan, Etxegon.
Gorulari Dantzen 50. urteurrena, 18:30ean, plazan.
Egundo I taldea, 20:00etan.
Mariatxiak. Kalejira kaskotik eta emanaldia, 21:00etan, Askondon.
Bertso saioa: U. Iturriaga, M. Lujanbio, A. Arzallus, N. Ibarzabal, J. Illarregi eta M. Amuriza, 22:00etan, frontoian. Gai jartzailea: M. Berriozabal.
Oxabi, gauerdian, plazan. Gero, **Pary&Tiza DJa**.

ZORNOTZA sanmiguelak

Meza, 12:00etan, Duedeako San Migel auzoan. **Luntxa**.
Gaztedi Barria txaranga, 20:00etan.
Mus Txapelketa Azkarra, 20:00etan.
Tortilla txapelketa, 20:30ean.
Le Mala Pékora, 22:30ean.
DJ Edugarmar, 00:30ean.

Irailaren 30ean

ATXONDO jaiak

Artzain Eguna, 11:00etan hasita, Axpen.

BERRIZ sanmiguelak

Jolasak, 17:00etan, Okangon.
Txirindularitza lasterketa herrikoia, 18:00etan.
Kontzertua: Gorka Bravo Sarrabetea eta Markel de Reparaz, 20:00etan.

DURANGO ikastaroa

'Bokadillotxuak' sukaldaritza ikastaroa (13-16 urte), 11:00etan, Merkatu plazan.

ELORRIO jaiak

Artisau azoka, jolasak, eskulanak eta puzgarriak, 12:00etan, Kulotxa auzoan.
Jammers, 12:00etan.
Txokolatada, 17:00etan.
Gor Super D. jey, 18:00etan.
Afari kontzertua: Aitor eta Maider, 20:30etan.

GARAI ibilbide gidatua

Ondarearen Jardunaldiak: 'Errituak eta ohiturak', 10:30ean, San Migel Goiaingeruaren elizan.

IURRETA sanmiguelak

Perkusio tailerra (And Bolo), 11:30ean, plazan.
Mozorro kalejira trikitilariekin, 12:30ean.
Bazkari herrikoia, 14:30ean, Askondon. Gero, **Bingo musikatua**.
Zutik elektrotxaranga, 18:30ean.
Luhartz, 21:00etan.
'Soms diables deabruak gara' (Lekittoko Deabruak), 22:00etan, plazan.
Luhartz, gauerdian, plazan. Ondoren, **DJa**.

OTXANDIO musika

Bisita gidatua, 11:00etan.
Ekoizle eta artisauen azoka, 11:00etatik 15:00etara.
Otxandio BTan ezagutu, 11:00etan eta 12:00etan.
Txorizo dastatzea, 11.30ean eta 12:30ean.
Txakolina eta bermuta, 13:00etan eta 14:00etan.
Jazz Kollektive Quartet, 13:00etatik 15:00etara.
'Izan bagara' (Korrontzi), 19:00etan.

ZORNOTZA sanmiguelak

Baselizak zeharkatzeko ibilaldia, 10:00etan, Duedeako San Migel auzoan.
Umeentzako animazioa, 12:00etan.
Igel txapelketa, 13:00etan.
Trikipoteoa.
Paella lehiaketa, 14:00etan.
Bazkaria.
Briska txapelketa, 17:00etan.
Xaibor, 17:30ean.
Hestebeteen altuerako txapelketa, 19:30ean.
Herri afaria, 21:00etan.
Bolo txapelketa, 22:30ean.
DJ Fardy eta Dantzaldia mozorrotuta, 22:30ean. Ondoren, karaokea.
Mozorrorik onenaren saria, gauerdian.

Urriaren 1ean

ABADIÑO solasaldia

'Lur gainean itzal azpian' saiakeraren egile Leire Milikuak gidatutako solasaldia, Alazne Itxauspe Elolagaz eta Leire Ayala Mazorriagagaz, 11:30ean, Gerediagako foru zelaian.

BERRIZ sanmiguelak

XXVII. Berrizko Baselizen

Oinezko Ibilbidea. Meza, 11:00etan. Ondoren, **Iremiñe dantza taldea**.

IURRETA sanmiguelak

XXIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, 10:00etatik 14:00etara, Olaburun.
Dantzari eta agintarien kalejira, 11:00etan, Montoitik plazara.
Dantza saioa, 12:30ean, plazan. Ondoren, Igel Txapelketa
Briska Txapelketa, 17:00etan.
Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua, 18:00etan, plazan. Ondoren, **jaietako errifen zozketa**
Lorraz taldea, 20:30ean.
Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuta, 22:00etan.

ZORNOTZA sanmiguelak

Meza, 12:00etan, Duedeako San Migel auzoan. Luntxa txistulariekin.
Udabarri dantza taldea, 13:00etan.
Bingo, 17:00etan.
Zorrotzako musika banda, 19:00etan.
Parrillada eta txokolatada, 19:00etan.
Errifaren zozketa eta jaien amaiera, gauerdian.

Urriaren 5ean

ABADIÑO musika

Sugar eta Zabala, 19:00etan, Isioturen lokalean.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Cerrar los ojos

barikua 29: 20:00
zapatua 30: 20:30
domeka 1: 19:30
astelehena 2: 20:15
martitzena 3: 20:15

• Golpe de suerte

barikua 29: 18:00
zapatua 30: 18:00
domeka 1: 18:00
astelehena 2: 18:00
martitzena 3: 18:00
eguztzena 4: 19:00

• The Creator

barikua 29: 18:30 / 21:00
zapatua 30: 17:30 / 20:30
domeka 1: 17:30 / 20:00
astelehena 2: 17:45 / 20:15
martitzena 3: 17:45 / 20:15
eguztzena 4: 19:00

• La ternura

barikua 29: 18:30 / 21:00
zapatua 30: 16:30 / 19:15 / 21:30
domeka 1: 17:00 / 19:30
astelehena 2: 18:00 / 20:15
martitzena 3: 18:00 / 20:15
eguztzena 4: 19:00

• El osito Boom

zapatua 30: 16:30
domeka 1: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Barbie

zapatua 30: 20:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• La voz del sol

barikua 29: 20:00
zapatua 30: 20:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15

• Tortugas Ninja: Caos mutante

zapatua 30: 17:00
domeka 1: 17:00

UDAKO 9. ARGAZKI LEHIAKETAKO irabazleak

DURANGALDEKO argazkirik onena

Epaimahaiaren saria
Maria Bizkarra



1

*Boto bidezko
sariduna*

Sheila San Miguel



2

Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena

*Epaimahaiaren
saria*

Jon Armendia



3

*Boto bidezko
sariduna*

Javi Garcia



4

ZORNOTZA ARETOA • ARITZ MALDONADO

Etxean ondutako lan batez ekingo dio denboraldi berriari Zornotza Aretoa, Anita Maravillasen *Andereño* lanagaz. Obra honen testuingurua gerra izango da eta errepublika garaiko andereñoak izango dira protagonistak. "Motibatzen gaituzten gaiak jorratzen ahalegintzen gara, lan zintzoak. Kasu honetan, barkuetan gerratik ihes egiteko eraman zituzten umeen irudiekin hasi gara lanean; idea hori abiapuntu hartuta, familia osoentzat iruditegi bat sortzen ahalegindu gara. Mugimendua eta eszenak zelan eraiki oso garrantzitsua da guretzat", azaldu du Miren Larrea Anita Maravillaseko zuzendariak. Antzezlanak hezkuntzaren eta gerraren arteko talka ere islatzen du. "Nagusiek hasitako gerraren aurretik, ume horiek bizitza bat zuten. *Andereño*ren istorioa aske eta zoriontsu izateko saiakera ero eta ederra da", nabarmendu du zuzendari zornotzarrak. Titereak eta antzerki bisuala jorratzen ditu nagusiki Anita Maravillasek, eta mugimenduei ere garrantzi handia ematen diete. "Ipuin itxura eman gura genion istorioari, eta, horretarako, fabuletan oinarritu gara. Horregaitik, animaliak dira protagonistak", gehitu du Larreak. Obra Anita Maravillas eta Portal 71ren elkarlana da; Iván Alonsok zuzendu du lana, eta Zornotza Aretoa egoitza modura erabili ahal izatearen abantailak nabarmendu ditu: "Honelako antzezlan batean pertsona ugari lan egiten dute; bi hilabetez leku

Zornotza Aretoa 'Andereño'-ren estreinuagaz ekingo dio denboraldi berriari

Anita Maravillasen azken sorkuntza da 'Andereño'; urriaren 6an izango da Zornotza Aretoan emanaldietariko bat, 19:00etan, eta bestea 7an izango da, 17:30ean



Anita Maravillas taldeko kideak Zornotzako udal ordezkariekin Zornotza Aretoan.

berean entseatu eta lana prestatu ahal izatea luxu bat da".

Antzerkiak gainera, musika eta dantza ere programatu dituzte udazkenerako Zornotza

Aretoan. Hile hauetan, ikuskitzuzun hauek egongo dira, besteak beste: *Bizkargi Eguna: atzokotik gaurkora* ikus-entzunezko lana, Ganso&Ciaren *Muna*, Logela Mul-

timediaren *Anbotoko Mari*, Zuhaitz Gurrutxagaren *FutbolisTOK*, Marie de Jonghen *Esna*, Melted klocks taldearen kontzertua eta Lasalaren *Shine*.


Zornotza Aretoa

Urria

- 6, '*Andereño*' (Anita Maravillas).
- 26, '*Bizkargi Eguna: atzotik gaurkora*'.
- 28, '*Loti ederra*' (Glu glu).

Azaroa

- 3, '*Cabezas de cartel*' (Perigallo).
- 11, '*Esna*' (Marie de Jongh/Doos).
- 16, '*Elkano*' **Browning Cream**.
- 17, '*Mierda de ciudad*' (Olatz Gorrotxategi).
- 23, **Zezilia Deunaren kontzertua**.
- 24, '*Shine*' (Lasala).



'Andereño'.

Durango Azokak hitzarmena sinatu du Konfekoop Euskadiko Kooperatiben Konfederazioagaz

Eragile bietako ordezkariak hitzarmena sinatu dute euskal kulturaren aldeko bidelagun izateko asmoagaz

DURANGOKO AZOKA • A. M.

Konfekoop, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Durango Azokaren babesle izango dela iragarri dute prentsa oharrean. Nerea Mujika Gerediaga elkarteak presidentea, Beñat Gaztelurrutia koordinatzaileak, Konfekoopeko Rosa Lavin presidentea eta Iñaki Nubla zuzendariak parte hartu dute sinadura ekitaldian. Euskal kulturaren aldeko bidelagun izateko asmoagaz sinatu dute hitzarmena. "Durango Azoka jende eta sektore ugari egiten du posible: sortzaileak,

parte hartzaileak, kulturzaileak, erakundeak, herri mugimenduek eta baita babesleak ere. Eta, hain zuzen ere, babesleen konpromisoa ezinbestekoa da", azpimarratu du Mujikak.

1996an ipini zuten martxan Konfekoop. Dagoeneko 1.400 kooperatibak osatzen dute eta, besteak beste, orientazioak eta parte hartzeak ardatzen dute bere jarduna. Azaldu dutenez, 2030 Agendagaz bat egiten du eta indar berezia ematen die genero berdintasunari eta hazkunde ekonomiko inklusiboari.



Beñat Gaztelurrutia, Nerea Mujika, Rosa Lavin eta Iñaki Nubla.

Domekan hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, urriaren 1ean; eskualdeko hamar lagun lehiatuko dira bertan

Mungian izango da domekako kanporaketa, Olalde aretoan, 17:00etan; Aritz Katarain mallabitarrak eta Txaber Altube abadiñarrak kantatuko dute saioan



Itxaro Juaristi, Aitor Bizkarra, Bittor Altube, Igor Galarza eta Gorka Pagonabarraga.

BERTSOLARITZA • A.M.

Domekan hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren bigarren fasea. Maiatzean lehenengoa jokatu ostean, udazkenean ekingo diote berriro ere txapelketari. 43 bertsolarik parte hartuko dute guztira, tartean Durangaldeko hamarrek. Domekako saioan Aritz Katarain mallabitarrak eta Txaber Altube abadiñarrak kantatuko dute, Izaro Bilbao, Koldo Muñiz, Mikel Goiriena eta Peru Vidal bertsolariekin batera; Mungian izango da kanporaketa hau, Olalde aretoan, eta 17:00etan hasiko da. Fase honetan, Bittor Altubek (Abadiño), Garikoitz Sarriugartek (Zaldibar), Iruri Altzerekak (Garai), Ander Sarriugartek (Durango), Igor Galarzak (Abadiño) eta Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek (Iurreta) ere kantatuko dute. Gorka Pagonabarraga durangarrak eta Aitor Bizkarra abadiñarrak finalurrekoan hasiko dute txapelketa, aurreko edizioan finalera heldu zirelako.

Kantatzen ez ezik, Durangaldeko hainbat lagunek parte hartuko dute Bizkaiko Txapelketan: besteak beste, Eider Gallastegi mallabitarrak eta Ione Narbaiza abadiñarrak

komunikazio taldean, Amaia Ugalde elorriarrak eta Itxaro Juaristi abadiñarrak gai jartzen, eta Beñat Romero zornotzarrak eta Miriam Juaristi zaldibartarrak epaile lanak egiten. Txapelketa hiru fasetan banatuko da; sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala jokatu dira. Durangaldean saio bakarra jokatuko da, lehenengo finalurrekoa. Azaroaren 11n izango da, Olakueta frontoian. Finala abenduaren 16an izango da, Bilbo Arenan, eta zortzi bertsolarik kantatuko dute bertan. Finalera hiru finalerdietako irabazleak, eta puntuaziorik altuena duten lehenengo bostak sailkatuko dira. Saioetarako sarrerak salgai daude www.bertsosarrera.eus atarian.

Ibarzabal txapeldun

2021ean izan zen Bizkaiko azkeneko txapelketa. Finaleko buruz burukora Jone Uria eta Nerea Ibarzabal sailkatu ziren, eta bigarrenak jantzi zuen txapela. Final horretan kantatu zuten, esandako moduan, Aitor Bizkarrak eta Gorka Pagonabarragak; Bizkarra Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren ateetan geratu zen iaz.

Gai librean

Norberaren kontakizuna izatearen garrantzia

Uda honetan, Laura Ferreroren "Los astronautas" (Alfaguara, 2023) liburuaren irakurketaz gozatzeko aukera izan dut. Idazleak, bere bizitzan oinarritutako fikziozko narrazio honetan, bidaia oso intimoa batean barneratzen gaitu; helduaroan (35 urte inguru dituela) Gabonetako familia-bazkari batean gertatutako pasadizo batek, bere bizitzaren kontakizun propioaren berridazketa eragiten dio. Ordura arte, bere nortasuna helduengandik jasotako informazio eta isilunez eratutako istorioak sostengatzen zuen, eta guztia goitik behera aztertu eta kontakizun berri bat eraikitzeari ekingo dio. Bidaia honetan, hainbeste maite dituen pertsonengan sortuko dituen min, beldur eta erresistentzia guztiei aurre egin behar izango die.

Irakurketa bukatu eta galderak sortu zaizkit; eta guk, nola eratu dugu geure kontakizun propioa? Norbanakoak garen aldetik, denok daukagu kontakizun hau sortzeko edota eratzeko aukera? Eta herri edo gizarte modura? Eskubidea bai,



Esti Albizu Goikoetxea
Bizenta Mogel liburutegia

noski, baina aukera? Pauso garrantzitsua da, nire ustez, aitortzea pertsona guztiek, eta gizarte guztiek ere, ez dutela beren kontakizun propioa izateko pribilegioa. Norberaren nortasuna eta narrazio pertsonala adierazteko askatasuna edukitzea gutxi batzuen kontua da, berez. Zentsura, diskriminazioa, pobrezia eta gainerakoak pairatzen dituzten gizarteetako kideek oso zail izango dute, norbanako zein gizarte modura, kontakizuna sortzea eta hedatzea.

Gainera, gure gizarteetan hainbat elementu bermatuta egon behar dira: hezkuntza eskura izatea funtsezkoa da komunikaziorako eta hausnarketa kritikorako trebetasunak garatzeko. Kalitatezko hezkuntza jaso ahal duten pertsonak aukera gehiago dituzte beren kontakizuna eraikitzeko eta adierazteko.

Bizitza egonkorra eta segurua izateak norberaren nortasunari eta narrazioari buruz hausnartzeko ingurune egokia eskaintzen du. Indarkeria-egoeretan, muturreko pobrezia egoeretan edo desplazamendu-egoeretan bizi diren pertsonak ez dauzkate hausnar-

tzeko eta beren kontakizuna partekatze behar dituzten espazioa eta baliabideak.

Kultura eta gizarte-nortasunen aintzatespena eta balorazioa funtsezkoak dira pertsonak beren kontakizuna partekatze ahaldunduta senti daitezen. Komunitate baztertuetakoko edo gutxiengoetako kideek erronka gehigarriak dituzte beren ahotsa entzunarazteko eta besteek haien historia aintzat hartzeko.

Gizarte modura, eta bakoitzak bere arloan, garrantzitsua da denontzako kontakizuna izateko pribilegioa aitortzea eta modu kontziente eta ardurasuan erabiltzea inklusioa, aniztasuna eta ekitatea sustatzeko. Funtsezkoa da, halaber, historikoki bazterturik edo isildurik izan direnen ahotsak indartzea, plataformak eta aukerak eskainiz, beren narrazioa partekatu dezaten eta gure munduaren ulermen kolektiboa aberasten lagun dezaten.

... eta horretan ari gara Astarloa Kulturegintza osatzen dugun San Agustin Kultur Gunea, Arte eta Historia Museoa, Plateruena Kultur Aterpea eta Bizenta Mogel biblioteka.

Zaldibarrek ere badu bere mendi lasterketa; Zaldua Trail mendi probak lehenengo aldia egingo du zapatu honetan

Sorginen Lasterketa eta Elorrioko Aldapegora joan berri direnean, Durangaldeak hirugarren mendi lasterketa hartuko du hilabeteren barruan. 20 kilometrogaz eta 1.300 metroko desnibel positiboagaz, ibilbide "exijentea" dela diote antolatzaileek. Egoarbitzara bidean daude aldatsik gogorrenak.



Santamarinazar ingurutik igaroko da lasterketa. ZALDUA MENDI TALDEA

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Hilabeteren barruan, Durangaldeak hirugarren mendi lasterketa hartuko du: Arrazolako Sorginen Lasterketa egin zen lehenengo, irailaren hasieran. Elorrioko Aldapegora etorri zen ondoren, joan zen asteburuan, eta zapatu honetan Zaldibarko

Zaldua Trail proba berriaren txanda izango da.

Zaldua Kirol Elkarteko mendi taldeak antolatu duen ekimenak lasterketetarako dagoen zaletasunari tokia egitea du helburu, mendi taldeko Jabi Sierrak azaldu duenez: "Denborak aldatzen dabilta. Orain mendi martxak

ez dira egiten lehengo moduan; sarritan korrika egiten dira. Zaldibarko mendi martxa azkeneko antolatu genuenean, desadostasun apur bat sortu zen parte hartzaile betereanoen eta berrien artean; lehenengoek zioten martxak oinez egiteko direla, baina askok korrika egiten zuten". Be-

raz, lasterketa berriagaz korrikalariak martxatik bereiztu gura dituzte, bakoitzari bere espazioa eskainiz. Bigarren arrazoi bat ere badago ekimen berria antolatze-ko: Zaldua Kirol Elkartearen 50. urteurrena. Data berezi horren harira, ekimen berri bat sortu gura zuten ospakizun modura.

Ibilbide "exijentea"

Lasterketa 10:00etan hasiko da, Zaldibarko plazan. 20 kilometro ditu, eta 1.300 metroko desnibel positiboa. Korrikalariak Goierri ingurutik Eitzagara joango dira. Osteko bidea gorabeheratsua da: Egoarbitzara igo, Aixolako presara jaitsi eta Santamañezarrera igoko dira berriro Zaldibarrera bajatu aurretik.

Trail "exijentea" da Sierraren esanetan. Egoarbitzarako igoeran daude aldatsik gogorrenak. "Desnibel gutxiagoko lasterketa egin genezakeen, baina gogorragoa egitea erabaki dugu kanpoko jendea erakarri guran", argitu du Sierrak.

Lehenengo aldi honetan, 50 eta 70 parte hartzailearen artean batzea espero dute. Oraingoz, espero zuten baino harrera baxuagoa izaten ari da izen emateari dagokionez, baina kontuan hartu behar da konpetentzia handia dagoela inguruan; hau da, lasterketa asko asteburu gutxiren barruan. Adibidez, urriaren 7an Anboto Kilometro Bertikala izango da, eta hurrengo egunean Aramotz mendi lasterketa. Lasterketa "proba" modura hartu dute eta gero balorazio bat egingo dute etorkizunean zer norabide hartu jakiteko.

"Kirol berri bat probatu gura genuen eta DRTn giro ona dagoela esan ziguten"

Emozio berrien bila, saskibaloia eta eskubaloia errugbiagaitik aldatu dituzte Saioa Alarcia eta Naia Sanchezek; orain talde nagusiko jokalariek dira eta apurka ofizioa ikastea dute helburu

ERRUGBIA • J.D.

Errugbiko Euskal Liga denboraldiak asteburuan hasiko dira. Hantxe arituko dira eskualdeko hiru ordezkariek: DRT, Elorrio eta Urgozo. Durango Rugby Taldeko emakumeen talde nagusiak urteari bermeagaz ekiteko taldea osatu du aurten. 25-30 emakume dituzte, iaz baino hamar bat gehiago. Batzuk errugbira bueltatu dira parentesi baten ondoren, eta beste batzuek lehenengoz probatuko dute kirol hau. Bigarren hori da Saioa Alarciaren (Durango, 2006) eta Naia Sanchezen (Durango, 2006) kasua. Alarcia saskibaloian aritu da urte askoan, eta Sanchez eskubaloian, eta bientzat kirol berria da errug-

bia. DRTk 16 urtetik gora talde bakarra duenez emakumeetan, zuzenean lehenengo taldera batu dira biak.

Alarcia aurretik ere egon da tentatuta errugbia probatzera. "Bere sasoiak, saskibaloian hartu ez banindute, errugbia probatzea pentsatuta neukan, baina hartu egin ninduten. Harrezkero hiru urte joan dira. Saskibaloiak ez ninduen hainbeste motibatzen, eta kirol berri bat probatu gura nuen", azaldu du. Sanchezek ere "etapa berri bat" hasi gura zuen, zazpi urtean eskubaloian ibili ostean. "Nire ahizpa errugbian dabil. DRTn giro ona dagoela esan zidan eta kirol hau probatzea gomendatu zidan", esan du.

Orain arte bizitakoagaz ez dute kezarik. "Oso giro ona" aurkitu dute taldean, eta "gustura" dabilta. Hori bai, argi dute asko dutela ikasteko. "Astiro-astiro ikasten joatea dugu helburu. Arau asko dago. Gainera, kirol teknikoak da eta oraingoz horixe egiten zaigu gaxena: teknika barneratzea. Bestela, kontaktu askoko kirola ere bada, baina hori bagenekien taldera batu aurretik eta horrek ez gaitu arduratzen".

Liga hasierak

DRTko emakumeek Iruñea RC taldearen kontra hasi behar zuten Euskal Ligako denboraldia asteburu honetan, baina atzeratu egin dute partidua, iruindarrek hala



Saioa Alarcia eta Naia Sánchez, DRTren egoitzaren aurrean.

eskatuta. Bestalde, DRTko gizonak Eibar taldea hartuko dute Arripausetan, zapatuan, 16:00etan.

Elorrio Rugby Taldeari dagokionez, emakumeen Elorrio/Urgozo

taldeak Zornotzan hasiko du denboraldia, domekan, 11:00etan. Eta gizonen Betsaide-Elorrio taldeak Arrasaten ekingo dio denboraldia-ri, zapatu arratsaldean.

Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketako nobedadea: paleta goman bikote mistoek jokatuko dute

Esku pilotako buruz burukoan, gazteen aldeko apustua egin dute; txapelketa gaur hasiko da, Tornosolon

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Kepa Arroitauregiren oroimenezko trinkete txapelketa nobedadeekin dator, bai paleta goman eta baita esku pilotan ere. Paleta goman, gizonen eta emakumeen txapelketa bana barik, bakarri antolatuko dute, bikote mistoekin. Ikusleentzat erakargarriagoa den formatua delakoan hartu dute erabakia

Tornosolo pilota elkarteko antolatzaileek. Zortzi bikoteen artean eskualdeko hiru ordezkari daude: Kepa Urien abadiñarra, Iker Agirresarobe elorriarra eta Mikel Garcia mallabitarrak; Nagore Martin, Amaia Espinal eta Laura Saez izango dituzte bikote-kide, hurrenez hurren.

Esku pilotan, Ipar Euskal Herriko pilotariak ekartzea gatxa

dela ikusita, inguruko gazteen aldeko apustua egitea erabaki dute. Sei pilotari ibiliko dira lehian, eurretari hiru eskualdekoak: Ipar Euskal Herrian geroago eta gehiago jokatzen dabiltzan Ibai Arroitauregi iurretarra eta Iker Escámez abadiñarra, eta Koldo Bikandi iurretarra. Seikotea Unax Ramírez sopolarrak, Sergio Sainz galdakoztarrak eta Jon Jara hernaniarrak osatzen dute.

Kanporaketak barikuro jokatuko dira, 18:30ean, Abadiñoako Tornosolo trinketean. Lehenengo jardunaldia gaur bertan da. Paleta goman partidu bi daude: Zulaika-Holguin/Arrieta-Ardanaz eta Garcia-Saez/Espinal-Aguirresarobe. Esku pilotan Iker Escamezek Sergio Sainzen kontra jokatuko du. Modalitate bietako finalak urriaren 28an jokatuko dira.



Tornosolo pilota elkarteko Aitor Arabiourrutia eta Ander Martin, txapelketaren aurkezpenean.

Imanol Agirrek brontzea Espainiako txapelketan

Euskadiko selekzioko parte izan da autonomien arteko txapelketan, eta hirugarren tokian amaitu du taldeka



Imanol Agirre ezkerrean, txapelketan arrantzuriko arrain bat eskuan duela.

URPEKO ARRANTZA • J.D.

Urpeko arrantzan denboraldiko lehiaketarik garrantzitsuenetarikoa jokatu zuten joan zen asteburuan: autonomien arteko Espainiako txapelketa. Estatuko urpekaririk onenak batu ziren Rotan (Cadiz) euren selekzioak ordezkatuta, eta Euskadikoa onenen artean aritu zen. Urpekari euskaldunak hirugarren sailkatu ziren. Taldea hirukote batek osatu zuen eta tartean durangar bat dago: Imanol Agirre. Beragaz batera Izaro Sub taldeko Lander Aurrekoetxea eta Jon Kepa Jauregi aritu ziren.

Proba "gogorra" izan zela azaldu dute protagonistek. Ur zikina aurkitu zuten, korrante askokoa eta, ondorioz, arrain gutxikoa.

Proba "gogorra" izan zela azaldu dute protagonistek, ur zikinek eta korrante askokoa

Beraz, hainbat zailtasuni aurre egin behar izan zieten egunean zehar. Azkenean, "urte zaporea" utzi dien brontzezko domina lortu zuten.

Jokaldia

Nesken saskibaloiak 50 urte

1973. urtean sortu zen nesken lehenengo saskibaloia taldea Durangon. Urte ona izan zen eta gauza on asko gertatu ziren. Talde horren eraketak beste ate asko ere zabaldu zituen zorionez, eta horren emaitzak gaur egun ere sentitu daitezke.

50 urteren ondoren, Durangoko saskibaloia nesken taldeek osatzen dute gehienbat, eta hurrengo urteetan ere horrela izango da. Adinez adin zenbat gazte eta talde dauden ikusita, gure herriko saskibaloian oinarri nagusi direla esan daiteke.

Banan banan izendatzen hasten banaiz, 50 urte hauetan izandako jolaskalari, entrenatzaile, talde ordezkari, zuzendaritza taldeko partaide, klubeko buru, nagusi... zerrenda bukaezina izango litzateke. Baina denek ekarpenaren



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Durangoko saskibaloia nesken taldeek osatzen dute gehienez; hurrengo urteetan ere horrela izango da


Bizipen asko geratu dira 50 urteko bidean. Gure bizitzetako zati garrantzitsu bat bihurtu dira

balioa azpimarratzeko modukoa da. Ikustea baino ez dago noraino heldu den ordutik hona. Eskerrik asko denoi!

Lehenengo urte hartatik denbora asko joan da, bide luzea egin dute eta

gaur egun gogor jarraitzen du proiektuak. Zerbakierei erreparatu gero, behintzat, horrela da. Baina oinarritik gogor landu beharko dugu egitura hau hazi dadin eta beste hainbeste urtean iraun dezan. 50 urte ospatzeak indarra berritzeko balioko du eta hurrengoetarako batera kargatuko digu. Lanean jarraitu behar da kirol helburuak bete eta hobetzeko eta, era berean, baita klubaren egiturari gogor eusteko ere.

Bizipen asko gertatu dira bidean. Gure bizitzetako zati garrantzitsu bat bihurtu dira eta hurrengoetarako ere lotura izango dute. Beraz, kluba eta klubeko neskek zorionduz amaitu nahi nuke gaurko zutabea. Lortutakoa handia da eta aurretik datorrena beste hainbestekoa izatea espero dut. Zorionak, neskek! Zorionak, Tabirako!




Mendirako zaletasuna dutenen topagune bihurtu zen Elorrio joan zen asteburuan. Zapatuan Aldapegora mendi lasterketa lehiatu zuten, eta domekan Elorrioko Bira mendi martxa luzean nahiz laburrean aritzeko aukera egon zen. Proba guztiak eta boluntarioak batuta, 900 bat lagunek parte hartu zuten ekimenetan, antolatzaileek zehaztu dutenez. Mendi lasterketan eskualdeko korrikalari bi izan ziren protagonista. Gontzal Murgoitio elorriarrak mutiletan eta Garazi Sampedo atxondarrak nesketan irabazi zuten lasterketa.

Aldapegora

Elorrio

Argazkiak: **UNAI OLASO**



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

IURRETA: 75 m². 3 logela, sukaldea terrazarekin, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Igogailua. **AUKERA. C.E.E=E**

MADALENA: 100 m². 3 logela, komuna, egongela-jangela eta despentsa. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 175.000 €**

ZALDIBAR: 70 m². 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Inbertsio moduan egokia. **C.E.E=E 105.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTEN AUKERAREKIN

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. 94 m². Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 309.000 €**

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA: 85 m². 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukalde jantzia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 198.000 €**

DURANGO: 118 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta aparkaleku zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 320.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna jakuziarekin, bainugela eta sukalde jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. **C.E.E=E 180.000 €**

MIKELDI: 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. **C.E.E=E 226.000 €**

ALDE ZAHARRA: Berriztatutako duplexa. 3 logela eta 2 komun. ganbara ikuspegiarekin. **C.E.E=G 206.000 €**

ABADIÑO: 88 m²-ko beheko solairua. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Bizitzen sartzeko moduan. **135.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta ganbara. **C.E.E=G 335.000 €**

IBAIZABAL AUZUNEA: 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 340.000 €**

LANDAKO: (autobus geltokia) 102 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. **350.000 € C.E.E=E**

DURANGO: Familiabakarrekua. 4 logela eta 4 komun. 330 m². Lorategia. terraza eta solariuma. Aparkaleku bikoitza. **595.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m²-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

// GARAJEAK SALGAI

MENDIZABAL: Garaje itxia. **20.000 €**

JUAN MARI ALTUNA: Garajea. **16.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatzeko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Zeletabe kalea. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.

ABADIÑO: Etxezpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiarekin, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

// BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 66 m²
3 logela
URKIAGA TORRE: Egongela, sukaldea, eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta erdigunetik gertu. Ezin hobea. 6 m²-ko trastelekua. Alokairuan erosteko aukerarekin.
176.000 € C.E.E: E

DURANGO 69 m²
2 logela
LANDAKO: (1.999. urtea): Egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta ganbara.
278.000 € C.E.E: E

DURANGO 68,80 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Beheko solairua (33,73 m²). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m²), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Ganbara eta garajea.
275.000 € C.E.E: D

DURANGO 90 m²
3 logela
FAUSTE BEKOA: 2003.urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. 55 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta 13,5 m²-ko trastelekua.
319.000 € C.E.E: E

MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreintatzeko.
266.450 €-tik aurrera

ABADIÑO 318 m²
GAZTELUA AUZOA: Baserria. Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxetokia, 78 m² erabilgarri dituena. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekua. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatzeko. Ingurune berdea eta lasaia, Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura.
440.000 € C.E.E: Bidean

// DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **LEHEN 300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

// BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€ ORAIN 85.000€ / E.E.Z=G**

MURGOITIA AUZOA: Berreraikitzeke baserria lurzorugaz. **280.000 €**

// GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

// IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€ / E.E.Z=E**

// IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

// OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

// ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

// GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

Botikak

BARIKUA, 29 · 09:00-09:00
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 30 · 09:00-09:00
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO
DE DIEGO, INTXAURRONGO 22 - DURANGO
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA
SANTAMARIA, ERREKAKALE 6 - ELORRIO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO
09:00-14:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
09:00-22:00
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 1 · 09:00-09:00
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 2 · 09:00-09:00
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 3 · 09:00-09:00
UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 4 · 09:00-09:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
EGUENA, 5 · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Paule (948. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.


Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
g gozatugozotegia



Zorionak, **Elena**, zure familiaren eta lagunuen partez.



Zorionak, laztana! 6 urte dagoeneko! Ederto pasatu zure eguna. Askok maite zaitugu!




Zorionak, ama, Jabi, Julen, Aratza, Amets, Lur, Maguie, Oreo, Goku, Boo eta familia guztiaren partez.



Zorionak, **Jon**, zure familian eta zure kuadrillan partez. Ondo pasa zure eguna.



Irailaren 28an gure **Enekok** 3 urte egin zituen. Zorionak familia osoaren partez eta musu handi bat.



Zorionak, **Malen**. Egun ona pasau.

Eskelak



Anton Uberuaga Zabala "Txatue"

Mallabian, 2023ko irailaren 28an

13 urte pasa dira,
baina gure bihotzean
bizi zara.
Askok maite zaitugu.

Etxekoak.



Eguraldia

ZAPATUA ↓ 15° / 33° ☀️

ASTELEHENA ↓ 18° / 33° ☀️

EGUAZTENA ↓ 16° / 25° ☁️

DOMEKA ↓ 17° / 32° ☀️

MARTITZENA ↓ 18° / 23° ☁️

EGUENA ↓ 16° / 26° ☀️

Betikoak
flexografia

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Ekoscan

Urrian Berrizen erosteak saria du!

1 2 3

DOAN

URRIAREN 2tik 21era lortu Berrizko irudiak dituzten 3 katiluren bilduma DOAN

Osatu zure katilu bilduma

- *02-07 urria: 1 erdua
- *09-14 urria: 2 erdua
- *16-21 urria: 3 erdua

Kanpainaren oinarri guztiak kontsultatu:
www.berrizkometerkatari.eus

Berrizko
Liburudonda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

"Esplotazioaren jabea neu naizela argitu behar izan dut askotan"

Leire Ayalak hamahiru zaldigaz eta zortzi behigaz hasi zuen abeltzain ibilbidea orain 30 urte. Bilbon jaioa izan arren, txikitatik mantendu izan du lotura nekazaritza munduagaz



Leire Ayala Mazorriaga
Abeltzaina
BILBO | 1972

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Gerediaga elkarteak antolatutako Ondare Jardunaldien barruan, emakume nekazari eta abeltzainen lana hartuko dute berbegai domekan Abadiñoko Gerediagako foru zelaian, 11:30ean. Leire Milikuaren 'Lur gainean, itzal azpian (2022)' saiakera ardatz hartuta, egileak zuzenduko duen solasaldian landa emakumearen lana ezagutaraziko dute, eta erakundeetan eta landa eremuen garapenerako politiketan emakumearen parte hartze handiagoa aldarrikatu. Bertan parte hartuko dute Alazne Itxaspe nekazariak eta Leire Ayala abeltzainak.

Asko hausnarturiko erabakia izan zen abeltzain bihurtzea?

Aitak betidanik izan ditu zaldiak, eta niri beti gustatu zaizkit behiak, animaliak orokorrean. Bada, aitak 13 zaldi eman zizkidan eta 8 behi erosi. Halaxe hasi nintzen apurka, orain 30 urte. Arkautiko Nekazaritza eskolan ikasi nuen, eta beka batez Frantziara joan nintzen. Geroago injeniaritza egin nuen.

Emakumea izanda, gatxago izan duzu? Zeintzuk traba topatu dituzu?

Nekazaritza-ganberan ez nuen trabarik izan. Baina hasieran ez zen erraza izan nire lekua hartzea. Esplotazioaren jabea, abeltzaina,

neu naizela argitu behar izan dut askotan. Beti pentsatu izan dute gizon baten sostengua dudala. Den-

Emakumeak eman dio beti jaten ganaduari, baina lan hori ez da inoiz ikusi. Orain badaude emakumeak esplotazioaren jabe direnak

boragaz aldatzen joan da pentsakera hori. Neuk jardun dut abeltzain modura, nahiz eta aitak lagundu

egin didan. Aita jubilatuta dago dagoeneko.

Bilbokoa izanik, zein izan da zure lotura abeltzaintzagaz?

Betidanik izan dut lotura nekazaritza munduagaz. Aitak lurrak erosi zituen Elorrion, Igurian. Baserria altxatu zuen eta txikitatik etorri gara zaldiak zaintzera.

Zenbat abelburu dituzu?

Guztira, 75 inguru. Oizen daude gehienak, urte osoan. Gutxi batzuk ditut Elorrion. Urkaiko kooperatibagaz merkaturatzen dut okela, eta bost urtetik hona ekologikoan lan egiten dut. Abelburuak kanpoan izaten ditut ahalik eta denborarik gehien, eta elurra egiten duenean bazka ekologikoa ematen diet. Ez dut belar-pozoirik erabiltzen. Sasia gehiagotan kendu behar denez, lan gehiago egin behar da, baina merezi du.

Bokaziozko ogibidea da gurea. Denbora asko eskaini behar zaio. Dena dela, niri gauza asko ematen dizkit

'Ganaderas en red' elkarteko kide zara. Garrantzitsua da saretzea?

Bai. Norberak egindako lana partekatzea garrantzitsua da, bidea egiten hasi direnentzat adibidez. Gainera, ondo dago elkar babestea, sostengatzea, edozein arazori aurre egiteko. Emakumea izan da beti ganaduari jaten eman diona, senarra lantokian edo mendian egon delako, baina lan hori ez da inoiz ikusi. Orain badaude emakumeak esplotazioaren jabe direnak eta horretan lan egiten dutenak.

Badator belaunaldi berriak atzetik?

Badaude gogo handiz datozen gazteak, baina administrazioaren laguntza handiagoa behar da. Esplotazio bat martxan ipintzeko, inbertsio garrantzitsu bat egin behar da hasieran. Horregaitik, gazteei apurka hastea gomendatuko nienke. Bokaziozko ogibidea da gurea. Denbora asko eskaini behar zaio, urtean 365 egunetan. Dena dela, niri gauza asko ematen dizkit.

Lau-hortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Ikusiezinei azpimarra

Irailak emoten deuto ikasturteari hasiera... eta ekinaldi barriak hasten doguzan honetan, ia-ia ikusiezinak diran ekarpenak azpimarratu gura dodaz agerkari honetan.

Euskaltegietan dagoz nigan lilura sortzen daben ekarpen batzuek. Euskararen sendotasunari hitzun bakoitzak ekarpen handia egiten badeutso, euskaldun barrien ola diran euskaltegiak euskararen bizi iturri amaigabea dira. Hori horrela izanda, txalotu egin behar dogu doakotasuna bermatzeko finantzazio publikoa bideratzea. Eta txalogarria da, baita ere, funtzio hori betetzen daben euskaltegi guztietako ikasleek trataera bardina jasotzea, salbuespen barik, bai udal euskaltegietako ikasleek bai gizarte ekimeneko euskaltegietako ikasleek.

Azken ñabardura honi joako gaurko azpimarra. Izan ere, gizarte ekimeneko hainbat erakunde dago gure gizartean, iraganeko erronkei herri lez emon deusagun erantzunaren testigu. Gizarte ehun horrek, gorputzeko giharrek bezala, erabiliaz mantentzen dau bere erantzuteko gaitasuna, eta horregaitik, betetzen daben funtzioa erakunde publikoetatik bermatu eta alkarreraginezko harremana sortu behar da... euskaltegietan bezala.

Beste esparru batzuetan igarten diran ordezkatzeko prozesuak hasteko tentaldien aurrean, gogoan izan daigun, gizarte ehun hori izango dala erronka barrien aurrean herri lez erantzuteko izango dogun gaitasunaren hazia. Bada, joan bekie hemendik, ikasle, irakasle eta gizarte ekimeneko erakundeei ikasturte barrirako hauspoa. Zuentzat ekinaldi barri honen lehen azpimarra!

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa